



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko abenduaren 29a

161. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

- Foru Legea, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banaketa ezartzen dituen 2018. eta 2019. urteetarako. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).
- Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (10. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru legea, irakaskuntzako funtzio publikorako sarbidea arautzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (19. or.).

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Hitzarmena, 2017tik 2019ra bitarteko urteetarakoa, Nafarroako Parlamentuko ordezkarien eta Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko Funtzionarioen Langileen Batzordearen artean sinatua (21. or.).
- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen 2018ko lan egutegia (23. or.).
- Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorraren 2018ko ordutegi ofiziala. (24. or.).
- 2017an indarrean dagoen Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen plantilla organikoa aldatzea (24. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

**Foru Legea, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banaketa ezartzen dituen 2018. eta 2019. urteetarako.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2017ko abenduaren 21ean egindako Osoko Bilkuran, foru lege hau onetsi zuen: "Foru Legea, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banaketa ezartzen dituen 2018. eta 2019. urteetarako".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2017ko abenduaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Foru Legea,  
toki ogasunek transferentzia arrunten  
bidez Nafarroako tributuetan parte  
hartzeko duten funtsaren zenbatekoa  
eta banaketa ezartzen dituen 2018.  
eta 2019. urteetarako**

**HITZAURREA**

Nafarroako toki ogasunek behar adinako baliabideak izanen dituzte legeak korporazioei esleitzen dizkien eginkizunak betetzeko, eta, funtsean, beren tributu propioez eta Estatukoetan eta autonomia erkidegoetakoetan parte hartuz hornituko dira. Konstituzioaren 142. artikuluan, Toki Araubideko Oinarriari buruzko Legean eta Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoan xedatutakoa betetzen da horrela.

Nafarroak eskumena du toki ogasunei dagokien arloa arautzeko, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 46. artikulua araberan.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeak, toki ogasunei buruzko VIII. tituluan xedatzen duenez, 259. artikuluan zehazki, Nafarroako toki entitateek beren eskumenak erabili eta beren esku utzitako helburuak bete ditzaten, toki ogasunei behar adina baliabide emanen zaizkie; baliabide horiek toki ogasunei buruzko foru lege baten bidez arautuko dira, Nafarroaren toki araubideari dagokion gaia baita.

Aurrekoa betetzeko xedez, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 260. eta 261. artikuluetan ezartzen da ezen toki ogasunen baliabide-iturriak izanen direla, besteak beste, beren tributuak eta Foru Komunitatearenetan eta Estatuarenetan duten parte-hartzea.

Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeak, I. tituluan, toki ogasunen baliabideen gainekoa baita, 123. artikuluan hain zuzen, zehatzago arautzen du zenbateraino har dezaketen parte toki entitateek Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan.

Abenduaren 21eko 21/2016 Foru Legearen bidez ezarri ziren toki ogasunek, 2017ko ekitaldirako, transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banaketa; agindu horretan, urtebeteko indarraldia ezarri zen, Nafarroako toki antolaketa berrirako araudia egiteko fasean gaudelarik, eta toki entitateen finantzabiderako etorkizuneko sistemari buruzko eztabaida puri-purian dugula, beharrezkotzat jotzen zelako epe hori salbuestea, gai horiei buruz aurrerago onetsiko diren legeak ez baldintzatzeko.

Nafarroako toki antolaketa berriaren prestaketa lanak amaitu gabe daudenez, 2018. eta 2019.

urteetarako ere komeni da foru lege bat onestea, lehenengo baldintza berberak daudela ikusita.

Foru lege honek ezartzen du, lehenengo eta behin, zein den toki entitateek transferentzia arrunten eta beste laguntza batzuen kontzeptuetan Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbateko osoa.

Aurreikusirik dago toki entitateek Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa 2018ko ekitaldian aurrekoan baino handiagoa izanen dela; igoera izanen da Nafarroako Foru Komunitatean kontsumoko prezioen indizeak (KPIa) izandako bilakaera, 2016ko ekainetik 2017ko ekainera kalkulatuta, ehuneko bi gehituta.

Horrez gain, funtsak igoera nabarmena izanen du, berritasun baten bidetik; izan ere, 2018an 5.800.000 euroko ahalegin ekonomikoa egingen da, Nafarroako udalek montepioen finantzaketarako egin beharreko ekarpenetan laguntzeko.

Aurreikusirik dago toki entitateek Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa 2019ko ekitaldian aurreko ekitaldian baino handiagoa izanen dela; igoera izanen da Nafarroako Foru Komunitatean kontsumoko prezioen indizeak (KPIa) izandako bilakaera, 2017ko ekainetik 2018ko ekainera kalkulatuta, ehuneko bi gehituta.

Horrela, jarraipena ematen zaio toki entitateen eskura jartzen diren baliabide ekonomikoak indartzearen ildoari, abenduaren 28ko 24/2015 Foru Legearekin hasitakoari, aurreko urteetan izandako murrizketak konpentsatzeko.

“Transferentzia arruntak” izeneko atalaren zenbatekoaren igoera hau izanen da: aurreko ekitaldiko transferentzia arrunten zenbatekoari aurreko urteko KPIa (ekainetik ekainera bitartekoa) gehi ehuneko bat aplikatuko zaio, eta, horren emaitzari, toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren, aurreko ekitaldikoaren, ehuneko bat gehituko zaio (montepioen finantzaketaren atala kontuan izan gabe).

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 123.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, transferentzia arruntak formula jakin baten bidez banatuko zaizkie udal eta kontzejuei, zuzentasunaren eta proportzionaltasunaren irizpideak kontuan hartuta, eta aipatu printzipio nagusiak gauzatu dituzten parametroetan oinarriturik.

Ildo horretan, foru lege honek proposamena egiten du transferentzia arrunten funtsaren banaketan ekitate horizontalaren printzipioa aplikatzeko, eta funts hori partitzeko, zuzenean, toki

entitate bakoitzaren gastu beharren arabera eta ahalmen fiskalaren alderantzizko proportzioan; horrela bermatzen da gehiago jasoko duela gastu behar handiagoa eta/edo baliabide berekiak eskuratzeko ahalmen txikiagoa duenak.

Banatzeko sistema bi mailatan antolatzen da. Lehendabizi, funtsaren birbanaketa bat ezartzen da udalen artean, Iruñeko Udala barne, haren balizko berezitasuna kontuan hartzen baita Hiriburutza Agiriari dagokion diru-esleipenean; bigarrenik, kontzejuek beren udalari emandako zenbatekoan izan beharreko parte-hartzea finkatzen da, kontzejuko bizilagunen kopuruaren proportzioan.

Lehen mailako banaketa-sistemarako, udalerrri bakoitzarentzat bi indize lortu behar dira, bata, gastu beharrena, eta bestea, ahalmen fiskalarena, eta horiek zenbatesteko bideak taxutu dira estatistikako prozeduretan oinarrituta, Nafarroako toki entitateen sektoreko kontabilitateari buruz dagoen informazioari aplikatu ondoren.

Gastu beharren indizea sei aldagai linealki konbinatuz lortzen da; tokiko gastu arruntean eragin handia dute aldagai horiek, eta haietako bakoitza gastua esplikatzen duen ahalmenaren bidez ponderatzen da. Aldagai horiek zehazturik zeuden Funtsaren zenbatekoa eta banaketa 2009tik 2012ra bitarteko aurrekontu-ekitaldietarako ezarritu zituen azaroaren 20ko 19/2008 Foru Legean, eta hauek dira: entitate bakoitzeko populazioa, hiri lurzoru garbiaren azalera, 65 urte edo gehiagoko biztanleen kopurua, etorkinak, azalera osoa eta barreiatze-indizea (populazioaren kontzentrazio indizearen alderantzizkoa).

Ahalmen fiskalaren ponderazio indizea 0,3491 da, hori baita indize horretan ordezkaturik dauden toki baliabide ekonomikoen baturak egiten duen portzentajea finantzatu beharreko gastu arrunt guztiekiko. Baliabide horiek honakoak dira: hirilurreko eta landa-lurreko ondasunen gaineko kontribuzioak, jarduera ekonomikoen gaineko zerga, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga eta herri-lurren aprobetxamenduagatik sarrerak. Horrenbestez, lurren gaineko egungo kontribuzioak dakartzan sarreren ponderazioak funtsaren banaketa sisteman duen eragina kontuan hartuta, foru legean aurreikusita dago udalek jaso beharreko zenbatekoak murriztuko direla, baldin eta 2019ko ekitaldian eguneratu gabe badituzte beraien udalerrietan aplikatzekoak diren balio katastralak, edo balio horiek berrikusteko legez ezarritako prozedura formalki hasi gabe badute.

Banaketaren bigarren mailak, berriz, kontzejuen parte-hartzea ezartzen du, udalerriri

esleitutako zuzkiduran oinarrituta. Partaidetza hori kalkulatzeko, udalerriri esleitutakoa 100eko 30ez eta udalerriko populazio osoarekiko kontzejuak duen biztanleen proportzioaz biderkatzen da. Parametro hori da kontzejuei dagokien gastuaren batez besteko proportzioa, gaur egungo eskumeneen banaketa kontuan izanik.

Proposatutako banaketa formulak berme sistema bat ezartzen du, udal eta kontzeju guztiek jaso dezaten KPIa adinako zenbatekoa edo handiagoa gehi ehuneko bat.

Horren helburua da udal batzuek aurreko ekitaldietan igoera modu linealean aplikatzearen ondorioz izandako sarrera jaitsiera zuzentzea, neurri batean behintzat.

Era berean, aurreko ekitaldietan bezala, "Beste laguntza batzuk" izeneko atalean kontzeptu hauek sartu dira:

Abenduaren 2ko 16/1997 Foru Legean xedatutakoaz baliatuz, Iruñeko Udalari "Iruñeko Hiriburutza Agiria" izeneko kontzeptuan dagokion zuzkidura.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 72.2 artikuluan aurreikusitakoa betetzeko behar den diruesleipena, hau da, toki entitateek beren interesak defendatu eta sustatzeko eratzten dituzten federazio edo elkarteentzako diru-laguntzei buruzkoa.

Nafarroako udalentzako konpentsazioa, hautesiei dedikazioagatik egindako ordainketak direla eta eman beharrekoa, foru lege honen 7. artikuluan aurreikusi bezala banatuko da.

Kontzeptu horien igoera kasuan kasuko ekitaldiko KPIa gehi ehuneko batekoa izanen da.

Azkenik, arestian esan denez, kontzeptu berri bat sartu da "Beste laguntza batzuk" izeneko atalean, "Montepioen finantzaketa" delakoa, udalei udal montepioek urtean dakarten kostu garbi osoaren zati bat finantzatzeko xedez.

## I. KAPITULUA

### Zuzkidura orokorra eta eguneratzea

#### 1. artikulua. Xedea eta indarraldia.

Foru lege honek toki ogasunek transferentzia arrunten bidez eta beste laguntza batzuen bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banaketa arautzen ditu 2018ko eta 2019ko ekitaldietarako.

#### 2. artikulua. Funtsaren zuzkidura 2018ko ekitaldirako.

2018ko ekitaldi ekonomikorako, toki entitateek Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan, transferentzia arrunten eta beste laguntza batzuen kontzeptuetan, parte hartzeko duten funtsaren zuzkidura 219.381.613 eurokoa izanen da hasieran, eta kopuru hori Nafarroako Aurrekontu Orokorretan agertuko da.

#### 3. artikulua. Funtsaren banaketa.

Toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa, 2018ko ekitaldirako, honela banatuko da hasiera batean:

1. Transferentzia arruntak: 182.792.759 €

2. Beste laguntza batzuk:

a. Montepioen finantzaketa: 5.800.000 €

b. Iruñeko Udalari, "Hiriburutza agiria" delakoa-gatik: 24.663.169 €.

c. Nafarroako udalei, korporazioko kideei ordainketak egiteko: 5.713.897 €

d. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari: 411.788 €.

#### 4. artikulua. Aurrekontuko dirua.

1. Nafarroako 2018ko eta 2019ko ekitaldietako aurrekontu orokorretan agertuko da zenbatekoa den toki entitateek Nafarroako Ogasun Publikoko tributuetan parte hartzeko duten funtsa.

2. 2019an "Transferentzia arruntak" izeneko atalerako funtsak izan beharreko zenbatekoa hau izanen da: Nafarroako Foru Komunitatean 2017ko ekainetik 2018ko ekainera bitarte izandako KPIa gehi ehuneko bat aplikatuko zaio aurreko ekitaldiko transferentzia arrunten zenbatekoari, eta, horren emaitzari gehituko zaio toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren, 2018ko ekitaldikoaren, ehuneko bat (montepioen finantzaketaren atala kontuan izan gabe).

3. 2019an "Beste laguntza batzuk" izeneko atalerako funtsak izan beharreko zenbatekoa, montepioen finantzaketaren atala kenduta, hau izanen da: 2018rako kontzeptu horretan finkatutakoa, eta horri gehituta Nafarroako Foru Komunitatean 2017ko ekainetik 2018ko ekainera bitarte izandako KPIa gehi ehuneko bat.

4. 2019an montepioen defizita finantzatzeko atalerako funtsak izan beharreko zenbatekoa honakoek osatuko dute:

a) Montepio Orokorren Finantzaketaren zenbatekoa, udalen artean banatzen dena popula-

zioaz beste irizpide batzuen arabera: zenbateko bat ezarriko da, kontzeptu honetan udalen artean banatu beharreko defizitari soldata-masaren ehuneko hogeita hamabi adinako zenbatekoa kentzearen emaitza izanen dena (soldata-masa hori defizita finantzatzen den ekitaldian montepioen araubidearen menpe dauden jarduneko funtzionarioei dagokiena da, mendeko langileak nahiz administrariak izan).

b) Iruñeko, Tafallako eta Tuterako udaletako montepioetako klase pasiboen urteko kostu garbi orokorra finantzatzeko portzentajeak berdinak direla bermatzeko helburua duen finantzaketaren zenbatekoa.

## II. KAPITULUA

### Transferentzia arrunten esleipena

**5. artikulua.** Udalerrientzako banaketa formula.

2018ko eta 2019ko ekitaldietarako, udalerrientzako banaketa formula prozedura honen bidez lortzen da:

a) Lehen fasean, gastu premien indizea lortuko da gastu premia adierazten duten sei aldagaien konbinazio linealaren bidez, haietako bakoitzak gastu hori azaltzeko duen ahalmenaren arabera ponderaturik. Honakoak dira aldagai horiek: entitate bakoitzeko populazioa, hiri lurzoru garbiaren azalera, 65 urte edo gehiagoko biztanleen kopurua, etorkinak, azalera osoa eta populazio indizearen alderantzizkoa.

b) Bigarren fasean, udalerrien ahalmen fiskala eta ondarekoa adierazten duten bost aldagaien konbinazio linealaren bidez lortuko da ahalmen fiskalaren indizea, aldagai haietako bakoitzaren eskubide likidatuek bost sarrera motetako eskubide likidatu guztiekiko duten garrantziaren arabera ponderaturik. Honako aldagai hauek erabiliko dira: lurreko ondasunen gaineko oinarri fiskalak, jarduera ekonomikoen gaineko zergarenak, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergarenak eta herri-lurren katastro-balioa.

c) Azkenik, gastu premien indizeari kentzen zaio 0,3491 faktoreak ponderatutako ahalmen fiskalaren indizea, eta formula hau aterako da:

$$FTC = 0,9231 \times PPOB + 0,1278 \times PMA65 + 0,3355 \times PURB + 0,1341 \times PPINM + 0,0083 \times PINVDISP + 0,0074 \times PSUP - 0,2490 \times PCTU - 0,0222 \times PCTR - 0,0760 \times PIAE - 0,0995 \times PIVTM - 0,0895 \times PVCC.$$

Bertan:

FTC da udalerri bakoitzaren banaketa indizea.

PPOB da udalerrri bakoitzeko populazioa adierazten duen portzentajea, Nafarroako populazio osoarekiko.

PURB da udalerrri bakoitzaren hiri azalera garbia adierazten duen portzentajea, Nafarroako hiri azalera garbi osoarekiko. Planoaren arabera azaleraren (azalera grafikoa) eta lurzati batura modura hartutako azaleraren (azalera alfanumerikoa) arteko diferentzia da hiri azalera garbia.

PMA65 da udalerrri bakoitzean 65 urte edo gehiago dituzten biztanleen portzentajea, Nafarroan 65 urte edo gehiago dituzten biztanle guztiekiko.

PPINM da udalerrri bakoitzeko etorkinen kopurua adierazten duen portzentajea, Nafarroako etorkinen kopuru osoarekiko.

PINVDISP da populazioaren kontzentrazio indizearen alderantzizkoa adierazten duen portzentajea, honela kalkulatu: udalerrri bateko bizigune bakoitzeko populazioak populazio osoarekiko egiten duen portzentajeen koadratuen batura, Nafarroa osoko populazioaren kontzentrazioaren indizeen alderantzizkoen baturarekiko.

PSUP da udalerrri bakoitzaren azalera osoa adierazten duen portzentajea, Nafarroako azalera osoarekiko.

PCTU da udalerrri bakoitzaren hiri-lurren gaineko kontribuzioaren likidazio-oinarri doitua adierazten duen portzentajea, Nafarroa osoan tributu horren likidazio-oinarri doituen baturak egiten duenarekiko. Oinarriak merkatu balioen arabera doitzen dira koefiziente zuzentzaile baten bidez; koefiziente horrek balioak handitzen ditu merkatu balioekiko duten urruntasunaren arabera. Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuko Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuak finkatuko du koefiziente zuzentzaile hori etxebizitzaren kasuan.

PCTR da udalerrri bakoitzaren landa-lurren gaineko kontribuzioaren likidazio-oinarria adierazten duen portzentajea, Nafarroa osoko landa-lurren likidazio-oinarri guztien baturarekiko.

PIAE da udalerrri bakoitzaren jarduera ekonomikoen gaineko zergaren oinarri-kuota adierazten duen portzentajea, Nafarroa osoko jarduera ekonomikoen gaineko zergaren kuoten baturarekiko; betiere, nazio, lurralde nahiz udal esparruetako kuoten batura hartzen da oinarri-kuotatzat, udal errekargua kenduta.

PIVTM da udalerrri bakoitzean trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren eskubide likidatuak adierazten dituen portzentajea, Nafarroa osorako zerga honen eskubide likidatu guztiekiko.

PVCC da udal bakoitzean herri-lurren katastroko balioa adierazten duen portzentajea, Nafarroako udalerrien balio guztiekiko. Udal-mugartean kontzejuak dituzten udalen kasuan, kontzejuetan kokaturik ez dauden herri-lurren balioa baizik ez da hartzen kontuan.

**6. artikulua.** Udalerrientzako hasierako diru-esleipena.

1. Aurreko artikuluan aipatzen den formula udalerrri bakoitzeko aldagaien balioei aplikatuz aterako da udal mailako banaketa-indizea.

2. Udalerriren batentzat ateratzen den banaketa-indizea negatiboa baldin bada, zero balioa emanen zaio, eta berriz kalkulatuko dira gainerako udalerrientzako banaketa-indizeak, haien guztien batura 1 izan dadin.

3. Banaketa-indize hau kasuan kasuko ekitaldiko transferentzia arrunten zenbatekoaren gainean aplikatuko da, udalerrri bakoitzari hasieran dagoen diru-esleipena lortzeko.

**7. artikulua.** Kontzejuentzako hasierako diru-esleipena

Kontzejuak dituzten udalerrietan, udal horiei esleitutako partaidetzatik zati bat kenduko zaie, aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera, kontzejuen artean banatzeko.

Entitate horientzako hasierako partaidetza kalkulatzeko, kasuan kasuko udalaren zuzkidura 100eko 30ez biderkatuko da, eta hori berriz ere biderkatuko da kontzejuko biztanleen kopuruak udalerriko biztanleria osoarekiko egiten duen proportzioaz. Udalerrriaren hasierako esleipena gelditzen den kopurua izanen da.

**8. artikulua.** Berme klausularen aplikazioa udal eta kontzejuetarako

1. Aurreko artikuluetan xedatutakoa aplikatzeari dagokionez, udalek eta kontzejuek jaso beharreko zenbatekoa ez da izanen, inola ere, aurreko ekitaldian transferentzia arrunten funtsaren banaketan jasotakoak KPIa eta ehuneko bat gehituta egiten duen zenbatekoa baino txikiagoa.

2. Baldin eta funtseko partaidetza, transferentzia arrunten kontzeptuan, udalerrri edo kontzeju bati hasieran esleitutakoa, iristen ez bada aurreko apartatuan ezarritako bermera, behar diren kopuruak kenduko zaizkie, hasieran esleituta zituztenez, bermatutakotik gorako kopuruak lortzen dituzten udalerriei eta kontzejuei, bakoitzari dagoen bermearekiko lortu duen igoeraren proportzioan.

**9. artikulua.** Erabilitako aldagaiak.

1. Nafarroako udalerrien arteko banaketa kalkulatzeko behar diren aldagaien balioak foru lege honen eranskinean aipatzen diren iturrietatik lortuko dira. Banaketa egiten den urteko maiatzaren 1ean Estatistikako Institutu Nazionalen udalerrietako biztanleriari buruz dauden datu estatistiko ofizialen urtea izanen da aldagai guztien erreferentzia-urtea. Erreferentzia-urte horretako daturik ez bada, hurbileneko urtekoak hartuko dira.

2. Aurreko apartatu horretan xedatutakoa ukatu gabe, Trakzio mekanikoko ibilgailuen zergaren datuak azken ekitaldiko kontuen espedientetik hartuko dira (espediente horrek, Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen arabera, aurkeztua behar-kopu baitu Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentuan), edo, bestela, ekitaldi horretako aurrekontuaren likidazio espedientetik, Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 227.2 artikuluan eta hura garatzeko xedapenetan xedatutakoaren arabera. Aurreko hori hala ez bada, eskura dagoen azken daturik berriena eguneratuko da, urteko 100eko 10eko igoera aplikatuz. Aurreko hiru ekitaldietako daturik ez bada, Nafarroako "per capita" daturik handienaren arabera kalkulatuko da, biztanleriaren aldagaia oinarritzat hartuz.

3. Kontzejuentzako banaketa kalkulatzeko, banaketa egiten den urteko maiatzaren 1ean eskura dauden datu ofizialen urtea izanen da erreferentzia-urtea; datuak urte berekoak izan behar dira, direla Estatistikako Institutu Nazionalaren udalerrien biztanleriaren estatistikakoak direla Nafarroako Estatistika Institutuaren kontzejuetako biztanleriaren estatistikakoak.

4. Aurreko apartatueta xedatutakoa ukatu gabe, kontzejuen edo udalerrien mugarteetan aldaketak gertatzen badira eta, aldagaien balioek haien eragina jasaten dutelako, banaketan kontuan hartu behar badira, aldagaien zenbatekoa berriro kalkulatuko da, banaketa gertatzen den uneko egoera administratiboari egokitzeko, betiere egoera administratibo horri buruzko datu ofizialik ez badago.

**10. artikulua.** Katastroko balorazio txostenak gaurkotzea.

Udal bakoitzari 2019rako dagokion zenbatekoa banatzean, katastroko balioak gaurkotu gabe badituzte edo, indarreko legeriarekin bat, udal-mugartean aplikatu beharreko balorazio txostena berrikusteko prozesua hasi gabe badute, transferentzia arrunten kontzeptuan jaso behar duten zenbatekoa %10 murriztuko da.

**11. artikulua.** Ordainketa

1. Toki entitateek Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan parte hartzeko duten funtseko diru kopuruen ordainketa, transferentzia arrunten kontzeptuan esleitutakoari dagokiona, bi alditan egingen da ekitaldi bakoitzean, otsaileko eta abuztuko lehen hamabostaldian.

2. Lehen ordainketaren zenbatekoa aurreko ekitaldian jasotako zenbateko osoaren erdia adinakoa izanen da.

3. Bigarren ordainketa egin aurretik, urteko behin betiko diru-esleipena kalkulatu da, eta lehen ordainketaren eta jaso beharreko zenbateko osoaren arteko diferentzia ordainduko da.

**12. artikulua.** Hiriburutza Agiriarengatik ordainketa eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarentzako laguntzaren ordainketa.

Iruñeko Hiriaren Hiriburutza Agiriarengatik ordainketa eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarentzako laguntzaren ordainketa aurreko artikuluan transferentzia arruntetarako aurreikusitako modu berean egingen dira.

**13. artikulua.** Nafarroako udalentsako konpentsazioa, hautetsiei karguan aritzeagatik ordaindu-takoagatik.

1. Hautetsien dedikazioagatik korporazioko kideei ordainsariak, bilkura-sariak, kalte-ordainak edo eginkizun publikoetan parte hartzeko eskubide konstituzionalaz baliatzearen ondorioz sortutako gastuengatik heldu diren bestelako pagamenduak ordaintzen dizkieten Nafarroako udalentsako konpentsazioa honela egingen da:

2. Baldin eta udalek erabakitzen badute beren alkate eta zinegotzietan ordaintzea, legeria orokorrari jarraikiz, haiek denbora osoan edo partzialean hautetsi lanean aritzeagatik, edo ematen badizkiete bilkura-sariak, kalte-ordainak edo bestelako pagamenduak, kargu publikoan aritzearen zuzeneko ondorio direnak, udal horiek ekarpen bat jasoko dute toki ogasunek Nafarroako zergetan parte hartzeko duten funtsetik, ordain horien kostuari aurre egiteko.

3. Kontzeptu horregatik udalek urtean jasotzen ahal duten gehieneko ekarpena, udala osatzen duten hautetsien kopuruaren arabera, legeria orokorrari jarraikiz, honako hau izanen da:

- A) 3 zinegotzi dituzten udalak: 4.422,72 euro.
- B) 5 zinegotzi dituzten udalak: 11.390,67 euro.
- C) 7 zinegotzi dituzten udalak: 16.751,07 euro.
- D) 9 zinegotzi dituzten udalak: 20.101,69 euro.

E) 11 zinegotzi dituzten udalak: 32.162,28 euro.

F) 13 zinegotzi dituzten udalak: 55.613,86 euro.

G) 17 zinegotzi dituzten udalak: 85.096,17 euro.

H) 21 zinegotzi dituzten udalak: 121.948,92 euro.

I) 27 zinegotzi dituzten udalak: 204.364,37 euro.

Ekarpen horiek ekarpen finalistak izanen dira, bakar-bakarrik erabiliko baitira alkate nahiz zinegotzietan aipatu diren kontzeptuengatik ordaintzeko, eta 2019ko ekitaldian eguneratuko dira, foru lege honen 4.3 artikuluan ezartzen den moduan.

Ordainketa ordainaldi bakarrean egingen da, transferentzia arrunten funts orokorraren bigarren zatiarekin batera. Jaso nahi duten udalek alde aurretik eskatu beharko dute, urte bakoitzeko maiatza baino lehen, eta eskabideari ekarpen horrek aurreko ekitaldian izandako zenbatekoa eta xedea jasotzen dituen ziurtagiria gehitu beharko diote, halako ekarpenik egin bazuten. Ekitaldi batean esleitutako diru kopurua ziurtagirian justifikatutakoa baino handiagoa denean, aldea erregulartzat egingen da, kasuko ekitaldiari dagokion ordainketatik kenduz.

4. Baldin eta soberakinik gertatzen bada korporazioko kideei gastuak konpentsatzeko diru-esleipenean, guztira likidatutako kopuruarekiko, soberakinak ez zaizkio gehituko transferentzia arrunten funts orokorrari.

5. Baldin eta defizita gertatzen bada korporazioko kideei gastuak konpentsatzeko diru-esleipenean, likidazioa egiteko behar den diru kopuruarekiko, modu proportzionalan murriztuko dira artikuluko honen 3. apartatuan ezarritako ekarpenak, kasuko ekitaldiko aurrekontuan erabilgarri dagoen kredituaren mugarekin.

**14. artikulua.** Montepioen finantzaketa.

Nafarroako udalei montepioen defizitagatik eman beharreko finantzaketa honela egingen da:

1. Behin organo eskudunak Montepio Orokorren defizita ezarri ondoren, udalen artean banatzen dena, populazioaz beste irizpide batzuen arabera, ukitutako udal bakoitzak ziurtagiri bat igorri beharko du, finantzatzen den defizitari dagokion ekitaldian bertan jardunean dauden langile mepkoen eta administrarien soldata-masari buruzkoa.

Udal bakoitzari egotzitako defizitari soldata-masaren ehuneko hogeita hamabi adinako zenbatekoa kenduko zaio, udalak berak ordaindu beharrekoa, eta gainerakoa parte hartzeko funtsaren kargura finantzatuko da.

Nafarroako Udal Funtzionarioen Montepio Orokorren defizita onesten duen ebazpen administratiboa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabeteko epean aurkeztu beharko da ziurtagiri hori, eta haren ordainketa urte bakoitzeko abuztuan eginen da, funtsaren bigarren zatiarekin batera. Epea betetzen ez bada, kontzeptu horretan inolako finantzaketarik jasotzeko eskubidea galduko da.

2. Behin organo eskudunak defizita finkatu ondoren, Iruñeko, Tafallako eta Tuterako udalek beren montepioen finantzaketan lagunduko dute, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legean ezarritako portzentajeekin bat. Udal horietako batek, foru lege horretan ezarritako gehiengo kopuruak gainditzeagatik, gainerako entitateek baino finantzaketa portzentaje txikiagoa jaso behar badu, gainerako entitateek ere finantzaketa portzentaje txikiagoa jasoko dute, haien defizitarren finantzaketa baldintza berdinetan egiteko moduan.

Iruñeko, Tuterako eta Tafallako udalek beren defizitak baldintza berdinetan finantzatzeko behar diren zenbatekoak jasotzeko, ziurtagiri bat aurkeztu beharko dute maiatza baino lehen, aurreko ekitaldian izan dituzten finantzaketa zenbatekoak eta portzentajeak bertan adierazita, kasuko ekitaldiko likidazio espedientean jasotakoaren arabera.

Nafarroako Foru Administrazioak urte bakoitzeko abuztuan eginen du ordainketa, funtsaren bigarren zatiarekin batera. Epea betetzen ez bada, kontzeptu horretan inolako finantzaketarik jasotzeko eskubidea galduko da.

Baldin eta, guztira likidatutako kopuruarekiko, soberakinik gertatzen bada montepioen finantzaketarako 2018ko ekitaldiko diru-esleipenean, soberakinak ez zaizkio gehituko transferentzia arrunten funts orokorrari.

Baldin eta, likidazioa egiteko behar den diru kopuruarekiko, defizita gertatzen bada montepioen finantzaketarako 2018ko ekitaldiko diru-esleipenean, modu proportzionalen murriztuko dira toki entitateentzako ekarpenak, 2018ko ekitaldiko aurrekontuan erabilgarri dagoen kredituaren mugarekin.

**Xedapen gehigarri bakarra.** Toki entitateek Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren partiden arteko funts mugimenduak.

Toki entitateek Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren partiden arteko funts mugimenduak egiten ahalko dira, transferentzia arrunten kontzeptuan, aurrekontu aldaketan izaera izan gabe.

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Foru lege honek 2018ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.



## ERANSKINA

Aldagaiak eta aplikazio iturriak banaketa formulan

1. Udalerrri bakoitzaren biztanleria. Estatistika-ko Institutu Nazionalak argitaratzen duen datu ofiziala, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ekoa.

2. Kontzeju bakoitzaren biztanleria. Nafarroako Estatistika Institutuak argitaratzen duen datu ofiziala, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ekoa.

3. Udalerrri bakoitzean 65 urte edo gehiago dituzten biztanleak. Estatistikako Institutu Nazionalak ematen duen datua, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ekoa.

4. Hiri azalera garbia. Planoan ageri den azalera (azalera grafikoa) ken lurzatie baturak duen azalera (azalera alfazenbakizkoa). Nafarroako Gobernu Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuak ematen du datu hori, eta erreferentzia-urtea udalerrietako populazioari buruzko datuaren urte bera izaten da.

5. Etorrinak. Nafarroako Estatistika Institutuak argitaratzen duen datu ofiziala, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ekoa.

6. Azalera osoa. Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuak ematen duena.

7. Populazioaren kontzentrazio indizearen alderantzizkoa, Nafarroako Estatistika Institutuak emandako datuekin urte bakoitzerako kalkulatu.

8. Hiri-lurren gaineko kontribuzio doituaren likidazio-oinarria. Udalerrri bakoitzeko hiri-lurren gaineko kontribuzioaren likidazio-oinarria, merkaturako balioei doitzeko koefizienteaz biderkatua. Bi horiek Nafarroako Gobernu Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuak ematen ditu, Nafarroako Lurralde Abe-

rastasunaren Erregistro Fiskaleko datuak harturik, udalerrien biztanleriari dagokion erreferentzia-urte bererako.

9. Udalerrri bakoitzeko landa-lurren gaineko kontribuzioaren likidazio-oinarria. Nafarroako Gobernu Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuak ematen du, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro Fiskaleko datuak harturik, udalerrien biztanleriari dagokion erreferentzia-urte bererako.

10. Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren oinarri kuota. Nazio kuoten, lurralde kuoten, lokal finkorik gabekoen udal kuoten eta lokal finkoa dutenen udal kuoten batura da, azken horretan udal erreargua kenduta. Datu hauek Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuko Jarduera Ekonomikoen Erregistroak emandakoak izanen dira.

11. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren eskubide likidatuak. Udalek Toki Administrazio Departamentuari igorritako kontuen likidazioetatik lortzen da. Igortzen ez baditu, zerbatespen bat aplikatuko da, foru lege honetako 9. artikuluko 2. apartatuan ezarritako irizpidearekin kalkulatu.

12. Herri-lurren katastroko balioa. Hori da, Nafarroako udalerrri bakoitzarentzat, herri-ondasunen eta haietatik datozenen balio katastrala, udalerrien biztanleriari dagokion erreferentzia-urte bererako. Kontzejuak dituzten udalerrien kasuan, ez dira sartzen kontzejuen titulartasuneko herri-ondasunak. Balio hori Nafarroako Gobernu Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuak ematen du, eta Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro Fiskaleko datuak hartzen ditu.

## **Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2017ko abenduaren 21ean egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea onetsi zuen

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2017ko abenduaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena**

#### HITZAURREA

Foru lege honen xedea Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzea da, Konstituzio Auzitegiak 2017ko ekainaren 5ean onetsi eta aurtengo uztailaren 15eko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 72/2017 Epaia betetzeko. Horrenbestez, xedea da erantzun normatibo azkar bat ematea, epai horrek hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren kudeaketan eta aplikazioan dituen ondorioak argitze aldera.

Aipatutako epaiak 686-2017 zenbakiko konstituzio kontraktasuneko gaia baiesten du, eta, beraz, deklaratu du Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 175.2, 175.3 eta 178.4 artikulua, hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergari buruzkoak, Konstituzioaren kontrakoak eta baliogabeak direla, betiere, balio gehikuntzarik gabeko egoerak zergapetzen dituzten aldetik.

Hori kontuan harturik, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen behar diren aldaketak egiten dira, hiri-lurren eskualdaketan balio-gehikuntzarik gertatzen ez denean eragiketa horiek zerga horren menpe egon ez daitezen, baina Konstituzio Auzitegiaren irizpideak aplikatuz, hau da: batetik, auzitegiak dio guztiz egokia dela balio-gehikuntzak zergapetzeko helburua duen politika legegile bat aukeratzeari, balizko ahalmen ekonomikoen zenbatespen objektiborako sistema batean oinarritzen dena, eta ez egiazko ahalmen ekonomikoan; bestetik, Auzitegiaren iritziz, hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga hori, egun legetan jasota dagoen

moduan, Konstituzioaren arabera da eragiketan lurren balio-gehikuntza dagoenean.

Horrez gain, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen beste aldaketa txikiago batzuk egiten dira, edukia hobetzeko eta eguneroko esperientziak atzemandako disfuntzio batzuk zuzentzeko.

Foru lege honek, halaber, irizpide berriak ezartzen ditu trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergan.

Foru lege hau hiru artikuluz, xedapen iragankor batez eta bi azken xedapenez osatuta dago.

Lehenbiziko artikulua 4. apartatua gehitzen dio Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 172. artikuluari, eta 2017ko uztailaren 15etik aurrera gertatzen diren zerga-egitateetan izanen ditu ondorioak.

Lehen artikulua horretan xedatutakoari jarraikiz, 2017ko uztailaren 15etik aurrera gertatzen diren zerga-egitateei aplikatuko zaie 172. artikuluko 4. apartatu berriaren arautzen den kasua, zergaren menpe ez egotea alegia, eta horrela, subjektu pasiboak frogatzen ahalko du balio-gehikuntzarik ez dela sortu eskualdaketaren balio errealean eta lurren eskurapen balio errealean arteko diferentziatik. Balio-gehikuntzarik ez dagoela frogatzen bada, eragiketa ez da zerga horren menpe egon, eta, beraz, lurren eskualdaketatik ez da hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren tributuziorik izanen.

Eskualdaketa zergaren menpe ez dagoela frogatzen ez bada (hau da, eskualdaketan balio-gehikuntza dagoela egiaztatzen bada), ordea, zerga-egitate horiei unean-unean indarra duen zerga araudia aplikatuko zaie gainerako guztian. Eta esan dezakegu jada 2017ko abenduaren 31 arteko araudia eta data horretatik aurrerakoa ez direla berdinak izanen.

Horrenbestez, lurren balio-gehikuntzarik izan ez den kasuan kargarik ez denez ezarriko, zergatik kanpo geldituko dira, eta kasu horietan ez da beharrezkoa izanen zerga-oinarriaren kalkulua egitea. Horrela, 2017ko uztailaren 15etik 2017ko abenduaren 31 bitarte gertatutako zerga-egitateei dagokienez, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 175.2, 175.3 eta 178.4 artikulua (Konstituzioaren aurkakotzat jo direnak) lurren balio-gehikuntza

gertatzen denean aplikatuko dira soilik, hau da, eduki hori konstituzioaren arabera denean, eta, horrela, epaia beteko da. Horrek esan nahi du 2017ko uztailaren 15etik 2017ko abenduaren 31 bitarte gertatutako zerga-egitateei, behin frogatu ondoren eskualdaketan balio-gehikuntza gertatu zela, data horietan indarra zuen araudia aplikatuko zaiela osotara (egungo 175.2 artikuluko taulak eta arauak barne). 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera gertatzen diren zerga-egitateei, ordea, behin frogatu ondoren eskualdaketan balio-gehikuntza gertatu zela, data horretatik aurrera indarra izanen duen araudia aplikatuko zaie (beste koefiziente eta erregela batzuekin, horiek 175.2 artikuluko berrian jasota egonen badira ere).

Kostu bidezko eskualdaketan kasuan, zehazki, ezartzen da ezen, balio-gehikuntza ez dagoela frogatzeko, lurraren eskualdaketaren eta eskurapenaren balio erreala, hurrenez hurren, higiezinaren eskualdaketan eta eskurapenean ordaindutakoak, izanen direla eragiketa horiek jasotzen diren agiri eta tituluetan ageri direnak, edo, bestela, udalak edo higiezinaren eskualdaketa kargatzen duten zergen kudeaketaz arduratzen den Zerga Administrazioak egiaztatutakoak, haiek baino handiagoak badira.

Irabazizko eskurapen edo eskualdaketak direnean, xedatzen da balio horien zenbateko erreala oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren aitorpenean ageri dena izanen dela, edo udalak edo eskualdaketa kargatzen duten zergen kudeaketa egiten duen tributu Administrazioak administratiboki egiaztatutakoak, hura baino handiagoak bada.

Ikusten denez, eragiketa zergaren menpe dagoen edo ez frogatzeko aukeratu den bidea erraza da, hasiera batean balio errealtzat hartuko baitira higiezinaren eskualdaketan eta eskurapenean ordaindutakoak, hurrenez hurren, eskualdaketa agiri bidez jasotzen dituen tituluetan ageri direnak alegia. Irabazizko eskurapen edo eskualdaketan kasuan, balioen zenbateko erreala, hurrenez hurren, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren aitorpenean ageri dena izanen da.

Alabaina, foru lege honek zehazten du hasierako aitorpena, zergaren menpe ez egoteari buruzkoa eta balioa egiaztatu aurretik egindakoa, behin-behinekoa izanen dela. Hori dela medio, ondoren egiaztatzen den balioaren arabera frogatzen bada balio-gehikuntza izan dela, lurraren eskualdaketa zergaren menpe geldituko da. Kasu horretan, udalak behar den tributu likidazioa egiten dute.

Likidazioa eginga bada ordurako, ordea, zergadunak eskubidea izanen du bidegabeki egindako

sarrerak itzul dakizkion, ondoren egiaztatutako balioaren arabera frogatzen bada ez dela balio-gehikuntzarik izan.

Foru legearen bigarren artikulua ere zenbait aldaketa egiten ditu Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean, baina 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera gertatzen diren zerga-egitateetan izanen dituzte ondorioak.

Bigarren artikuluko horren bigarren apartatuan, testu berria ematen zaio Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 175. artikuluari, zergaren zerga-oinarria arautzen duenari.

175. artikuluko 1. apartatuan, aldaketa hauek egiten dira:

1.- "Erreala" hitza kentzen da zerga-oinarriaren kontzeptua definitzen denean. Honela xedatzen da: zerga-oinarria "hiri-lurren balio-gehikuntza da, sortzapenaren unean dagoena, gehienez ere hogeiterteko epean izandakoa".

2.- Aginduari tarte bat gehitzen zaio amaieran, zerga-oinarria zehazteko moduari dagokiona. Zerga-oinarria zehazteko, bi hauen biderketa egiten da: sortzapenaren unean lurra zuen balioa eta 2. apartatuan aurreikusitakoaren arabera sortzealdiari dagokion koefizientea.

Beraz, 175. artikuluko 1. apartatuan zehazten dira zerga-oinarria ezartzeko moduan egiten diren aldaketa garrantzitsuak: lurraren balioa balio-gehikuntzaren sortzealdiarekin lotuta egonen den koefiziente batez biderkatuko da. Finean, egungo 175.2 artikulua ezarritako taula eta erregeletako portzentajeen ordez, koefiziente batzuk ezartzen dira, artikuluko horren 2. apartatu berrian jasotakoak, balio-gehikuntzaren sortzealdiaren arabera.

Horrez gain, 2. apartatu horretan berean beste berritasun bat ezartzen da: sortzealdia urtebetetik beherako denean ere kargatuko da eragiketa. Kasu horretan, urteko koefizientea hainbanatuko da, kontuan hartuta soilik hilabete osoak, hilabete zatikiak alde batera utzita.

Foru legean jasotako koefiziente horiek gehienekoak dira, eta udalak txikiagoak ezartzen ahalko ditu; urtero eguneratuko dira 58.2 artikuluan ezarritakoarekin bat.

Koefiziente horiek zehazteko, urte bakoitzeko batez besteko balioak hartu dira oinarritzat, Nafarroan dauden higiezinak; katastroko baloraziorako onetsitako eraikuntza kostuaren modulua kendu zaie.

Bestetik, udalak onets dezaketan gehieneko karga-tasaren zenbatekoa handitzen da. Orain arte, karga-tasa 100eko 8ko gutxienez 100eko

20ko gehienekora bitartekoa izan da. Eta aurrerantzean, gehieneko muga ehuneko 20tik ehuneko 25era igotzen da.

Ondoren, foru legeak araubide iragankor bat ezartzen du Konstituzio Auzitegiak 2017ko ekainaren 5ean emandako epai horrek denborari dago-kionez dituen ondorioak zehazteko. Zehazki, foru legearen xedapen iragankor bakarrak arautzen du zein den hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren likidazio batzuei aplikatu beharreko araubide iragankorra.

Xedapen iragankor horren lehen apartatu 2017ko uztailaren 15a baino lehen gertatutako zerga-egitateei dagozkien likidazio irmoei buruzkoa da. Beraz, helburua da irizpideak finkatzea Konstituzio Auzitegiaren epaiak denboran izan beharreko ondorioei dagokienez, 2017ko uztailaren 15a baino lehen gertatutako zerga-egitateei dagozkien tributu likidazioak irmo izateak dakartzan mugak berariaz aipatuz.

Gai honi dagokionez, Konstituzio Auzitegiaren doktrina kontsolidatutzat har daiteke (denak ordezkaturik, Konstituzio Auzitegiaren 2015eko martxoaren 18ko 60/2015 Epai) segurtasun juridikoaren printzipioak (EKaren 9.3 artikulua) egoera juridiko kontsolidatuen ukiezintasun osoa edo ia osoa eskatzen duela; ez soilik gauza epaituaren indarrez erabakitakoa, baita administrazio egoera irmoena ere.

Doktrina konstituzional horrekin bat, xedapen iragankor horren lehen atala 2017ko uztailaren 15a baino lehen gertatutako zerga-egitateei dagozkien likidazio irmoei buruzkoa da.

Arauk erregela hauek ezartzen ditu:

Lehena.- Ez da aplikatuko foru lege honetan xedatutakoa.

Bigarrena.- Ez da eginen sarrera bidegabeen itzulketarik.

Hirugarrena.- Aipatutako likidazioetatik eratorritako diru-bilketarako prozedurek aurrera jarraituko dute, guztiz burutu arte, eta geroratutako edo zati-katutako tributu zorrak osorik ordaintzea eskatuko da.

Bestalde, xedapen iragankor bakarraren bigarren atala 2017ko uztailaren 15etik 2017ko abenduaren 31ra bitarte gertatutako zerga-egitateei dagozkien likidazio irmoei buruzko da.

Ikusten denez, arautzen den egoera ez da xedapen iragankor bakarraren lehen apartatuan arautzen den berbera: 2017ko uztailaren 15etik aurrera eta 2017ko abenduaren 31 bitarte gertatutako zerga-egitateak, bi egunak barne. Hau da,

Konstituzio Auzitegiaren epaitza argitaratuta zegoen data. Epaitza argitaratu ondotik ere, litekeena da udalen batek zerga likidazioak eginik izatea 2017ko uztailaren 15etik 2017ko abenduaren 31 bitarte gertatutako zerga-egitateen gainean, eta likidazio horiek irmo izatea.

Likidazio irmo horiei 172.4 artikuluan aurreikusitako kasu berria aplikatuko zaie, zergaren menpe ez egotea alegia. Baina kasua zergaren menpe dagoela frogatzen bada, egun indarra duen zergaren araudia aplikatuko da, hau da, 175.2 artikuluko erregela eta taulekin.

Beraz, kasua hau da: tributu likidazio irmo bat dago, baina, kontuan hartuta zergaren zerga-egitatea Konstituzio Auzitegiaren 72/2017 Epai EAOn argitaratu ondoren gertatu zela, foru lege proiektuak ezartzen du 172.4 artikuluan aurreikusitako abantaila aplikatuko dela, zergaren menpe ez egotea alegia. Kasua zergaren menpe ez dagoela egiaztatzen bada, sarrera bidegabeak itzuliko dira.

Kasua zergaren menpe dagoela frogatzen bada, 2017ko abenduaren 31 arte indarra izandako zerga aplikatuko da (egungo taula eta erregelekin).

Xedapen iragankorraren hirugarren atalak, berriz, irmo bihurtu ez diren tributu likidazioen kasuak arautzen ditu, 2017ko abenduaren 31 arte gertatutako zerga-egitateei dagozkienak, egun hori barne. Ikusten denez, hirugarren atal hau irmo bihurtu ez diren likidazioei buruzkoa da, 2017ko uztailaren 15a baino lehen nahiz ondoren baina 2017ko abenduaren 31 arte gertatutako zerga-egitateei dagokienez.

Irmo bihurtu ez diren likidazio horiei dagokienez, erregela hauek aplikatuko dira:

Lehena.- Foru lege proiektuaren lehen artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

Bigarrena.- Aurreko erregelaren xedatutakoaren bat, eragiketa zergaren menpe dagoela frogatzen bada, sortzapenaren unean indarra zuen araudia aplikatuko da.

Azkenik, xedapen iragankorraren laugarren apartatuak irizpideak ezartzen ditu, ebatzi gabe dauden errekurso administratibo edo judizialak ebazteko, xedapen iragankor hau aplikatzen ahal zaien tributu likidazioei buruzkoak badira.

Hirugarren artikulua trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergan 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatu beharreko tarifa berriak dakartza. Tarifa horiek eguneratzeko aintzat hartu den irizpidea da Toki ogasunek transferentzia arruntan

bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtserako urtero finkatzen den igoera aplikatzea. Alde horretatik, Toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banaketa 2018 eta 2019 urteetarako ezartzen dituen Foru Legearen aurreproiektuan aurreikusten denez, Nafarroako Foru Komunitatean KPIren igoera, ekainetik ekainera hartuta, ehuneko 2koa izanen da 2018. urtean. Kontuan hartuta 2016ko ekainetik 2017ko ekainera bitarte KPIIn gertatu den aldaketa ehuneko 1,1ekoa izan dela, transferentzia arrunten funtsaren zenbatekorako aurreikusitako aldaketa orokor garbia ehuneko 3,1ekoa da, eta beraz, ehuneko hori proposatuko da zergaren tarifei aplikatzeko 2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

Azken xedapenetako lehenean, arau gaikuntza jasotzen da, Nafarroako Gobernuari foru lege hau garatu eta betearazteko behar diren xedapenak emateko baimena ematen diona.

Azken xedapenetako bigarreanean xedatzen da foru legeak noiz hartuko duen indarra bertan jasotako ondorioak izateko, hau da, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 20.2 artikuluan, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateginaren 152. eta 153. artikuluetan ezarritakoarekin bat, foru lege hau gehiengo osoz onetsi da.

**Lehen artikulua.** Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen aldaketa. 2017ko uztailaren 15etik aurrera gertatzen diren zerga-egitateetan izanen ditu ondorioak.

**Apartatu bakarra.** 172. artikuluari 4. apartatua gehitzen zaio.

“4. Hiri-lurren eskualdaketak ez dira zergaren menpe egonen baldin eta subjektu pasiboak frogatzen badu horietan ez dela balio-gehikuntzarik izan lurren eskualdaketaren eta eskurapenaren balio errealean arteko diferentziak eraginda.

Ondorio horietarako, subjektu pasiboak balio-gehikuntzarik ez dela izan ziurtatzen duten frogak aurkeztu beharko ditu.

Balio-gehikuntzarik ez dela izan frogatzeko, lurraren eskualdaketaren eta eskurapenaren balio errealak izanen dira, hurrenez hurren, ondasun higiezinaren eskualdaketan eta eskurapenean ordaindutakoak, eragiketa horiek agiri bidez jasotzen dituzten tituluetan ageri direnak, edo, bestela, udalak edo higiezinaren eskualdaketa kargatzen

duten zergen kudeaketaz arduratzen den Zerga Administrazioak egiaztatutakoak, haiek baino handiagoak badira.

Irabazizko eskurapena edo eskualdaketa denean, aurreko paragrafoetako erregelak aplikatuko dira, eta oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren aitorpenean ageri dena izanen da balio horien zenbateko erreala, edo udalak edo eskualdaketa kargatzen duten zergen kudeaketaz arduratzen den Zerga Administrazioak administratiboki egiaztatutakoa, hura baino handiagoa bada.

Apartatu honetan xedatutakoarekin bat egindako deklarazioa, eragiketa zergaren menpean ez dagoela dioena, balioa egiaztatu aurrekoa, behin-behinekoa izanen da. Hori dela medio, ondoren egiaztatzen den balioaren arabera frogatzen bada balio-gehikuntza izan dela, lurraren eskualdaketa zergaren menpe geldituko da. Kasu horretan, udal-lek behar den tributu likidazioa eginen dute.

Likidazioa egina badago ordurako, ordea, ondoren egiaztatutako balioaren arabera frogatzen bada ez dela balio-gehikuntzarik izan, zergadunak eskubidea izanen du dagokion itzulketa egin dakion.

Aurreko bi paragrafoetan xedatutakoa aplikatuko da baldin eta, kasu horietako bakoitzean, preskribitu ez badu udalen eskubideak tributu zorra zehazteko, edo zergadunen eskubideak bidegabe sarreraren itzulketarako.

Apartatu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, Foru Komunitateko Zerga Administrazioak udalei jakinaraziko die zein diren berak egiaztatutako balioak, haien udalerrietan dauden higiezinak.

Lurzoruaren balioa bereizirik ageri ez bada, honela kalkulatu da: eskualdaketaren datan lurraren balio katastralak ondasun higiezinaren balio katastral osoarekiko egiten duen proportzioa aplikatuko da. Proportzio hori higiezinaren eskualdaketarako nahiz eskurapenerako aplikatuko da.

Apartatu honetan adierazitakoarekin bat lurren balio-gehikuntzarik ez dagoenean, 178. artikuluan araututako deklarazioa aurkezteko betebeharra mantenduko da betiere.

Apartatu honetan adierazitakoarekin bat lurren balio-gehikuntzarik ez dagoenean, higiezinaren ondorengo eskualdaketan ez da kontuan hartuko eskuratu aurreko aldia lurren balio-gehikuntza gertatu den urte kopurua kontatzearen ondorioetarako. Paragrafo honetan xedatutakoa ez da aplikatuko higiezinaren ekarpenak edo eskualdaketak zergaren menpe ez badaude Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru

Legearen zortzigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaz baliatuz”.

**Bigarren artikulua.** Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen aldaketa. 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera gertatzen diren zerga-egitateetan izanen ditu ondorioak.

Bat. 173. artikulua.

“1. Zerga honetatik salbuetsirik daude ondoko egintza hauen ondorioz gertatzen diren balio-gehikuntzak:

a) Ezkontideek ezkontza-sozietateari egindako ondasun eta eskubide ekarpenak, haren alde eta haiek ordaintzeko egindako esleipenak, eta ezkontideei haien bien aktiboen ordainetan egiten zaizkienak.

b) Herentziaz, legatuz, ezkonsariz, dohaintzaz edo doako beste edozein titulu bidez aurrekoen, ondorengoan eta ezkontideen artean egiten diren eskualdaketak, mota guztietako ondasunenak.

c) Ezkontideen arteko edo seme-alaben aldeko ondasun eskualdaketak, deuseztasun, banaketa edo dibortzio kasuetan epaiak betetzearen ondoriozkoak, ezkontza araubide ekonomikoa edozein dela ere.

d) Zortasun eskubide ororen eraketa eta eskualdaketa.

Nolanahi ere, aurreko a), b) eta c) letretan aipatzen diren negozio juridikoak gertatzen direnean, ez dute etenik eraginen 175. artikuluan aurreikusitako hogeituro urteko epean. Higiezin horiek gero eskualdatzen direnean, ulertuko da lurren balio-gehikuntza gertatu den urteen kopuruan ez dela etenik izan letra horietan aurreikusitako negozio juridikoak direla eta.

e) Ondasun eskualdaketak edo jabaria mugatzen duten gozamen eskubide errealen eraketa edo eskualdaketa irabazizkoa, Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu Araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legean aurreikusitako zerga araubidea aplikatzeko zaien entitateen alde, edo maiatzaren 16ko 8/2014 Foru Legearen 4. artikuluan aipatzen den kultur mezenasgoaren onuradunak diren pertsonen eta entitateen alde (foru lege horrek Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga-pizgarriak arautzen ditu).

Letra honetan araututako salbuespenerako eskubidea izateko, beharrezkoa izanen da ondasun edo eskubide horiek 10/1996 Foru Legean jasotako entitateen berariazko xedea diren jardueri atxikitzea, edo 8/2014 Foru Legean jasotako

pertsonen edo entitateen egindako proiektuei edo jardueri, baldin eta interes sozialaren deklarazioa badute, Nafarroako Gobernuan kulturaren esku-mena duen departamentuak emana.

2. Era berean, kasuan kasuko balio-gehikuntzak zergatik salbuetsirik daude zerga hori ordaintzeko betebeharrak pertsona edo entitate hauei dagokienean:

a) Nafarroako Foru Komunitatea, Estatuak, autonomia erkidegoak, bai eta haien erakunde autonomo administratiboak ere.

b) Zergapetzearen udalerria eta udalerririk horretan sartutako gainerako toki entitateak, edo udalerria kide dutenak, bai eta haien erakunde autonomo administratiboak ere.

c) Gizarte Segurantzaren entitate kudeatzaileak eta gizarte-aurreikuspeneko mutualitateak, Aseguru eta Berraseguru Entitateen Antolamenduari, Gainbegiratzeari eta Kaudimenari buruzko uztailaren 14ko 20/2015 Legean araututakoak.

d) Nazioarteko tratatu edo hitzarmenetan salbuespena aitortua duten pertsonak edo entitateak.

e) Emakida administratibo errebertigarrien titularrak, horiek atxikiak dituzten lurrei dagokienez”.

Bj. 174.3. artikulua.

“3. Hipotekaren betearazpen judizial edo ezjudizial bat egiten ari den bitartean hipoteka-zordunek ohiko etxebizitzaz beste ondasunak direla eta egindako eskualdaketatik, konkurtso-prozedura baten esparruan, higiezin eskuratzen duen pertsona edo entitatea zergadunaren ordezkotzat joko da, eta hari jasanarazten ahaliko dio kargaren zenbatekoa”.

Hiru. 175. artikulua.

“1. Zerga honen zerga-oinarria hiri-lurren balio-gehikuntza da, sortzapenaren unean dagoena eta gehienez ere hogeituro urteko epean izandakoa; haren zenbatekoa kalkulatzeko, sortzapenaren unean lurra zuen balioa, artikuluan honen 3., 4., 5. eta 6. apartatuetan xedatutakoaren arabera kalkulatu, sortzealdiari 2. apartatuan aurreikusitakoaren arabera dagokion koefizienteaz biderkatuko da.

2. Balio-gehikuntzaren sortzealdia hau izanen da:

a) Lurraren jabetza eskualdatzen denean, eskualdaketa kostu bidezkoa nahiz irabazizkoa izan, lurraren eskurapenaren egunetik eskualdatu arte igarotako urte kopurua.

b) Jabaria mugatzen duen eskubide erreal bat eratzen denean, luraren eskurapenaren egunetik eskubide erreala eratu arte igarotako urte kopurua.

c) Jabaria mugatzen duen eskubide erreal bat eskualdatzen denean, eskubidearen eskurapenaren egunetik eskualdaketa egin arte igarotako urte kopurua.

Igarotako urteen kopurua kontatzean urte osoak hartuko dira, urte zatikiak kontuan hartu gabe. Sortzealdia urtebetetik beherakoa denean, urteko koefizientea hainbanatuko da, soilik hilabete osoak kontuan hartuta, eta ez hilabete zatikiak.

Sortzapenaren unean lurak duen balioaren gainean aplikatu beharreko koefizientea, artikulua honetan xedatutakoari jarraikiz kalkulatu, udalak onetsitakoetatik dagokiona izanen da, balio-gehikuntzaren sortzealdiaren arabera, baina muga hauek gainditu gabe betiere:

	Sortzealdia
0,63	20 urtekoa edo hortik gorakoa
0,58	19 urte
0,51	18 urte
0,36	17 urte
0,21	16 urte
0,06	15 urte
0,06	14 urte
0,06	13 urte
0,06	12 urte
0,06	11 urte
0,06	10 urte
0,06	9 urte
0,06	8 urte
0,06	7 urte
0,06	6 urte
0,06	5 urte
0,06	4 urte
0,11	3 urte
0,13	2 urte
0,13	Urtebete
0,06	Urtebetetik behera

Gehieneko koefiziente hauek urtero eguneratuko dira, 58.2. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

3. Lurren eskualdaketatik, zergaren sortzapenaren lurrek duten balioa izanen da indarra duen balorazio txostena aplikatzearen ondoriozkoa, ondasun berezizat harturiko zati badira ere

edo eskualdatutako ondasun higiezinaren banako balioa zehaztu gabe badago ere.

Aurrekoa gorabehera, luraren eskualdaketa egiten den unean indarreko balorazio txostenean azaltzen ez bada lurak zerga honen ondorioetarako duen hiri-lur izaera, edo luraren hirigintzako ezaugarriak aldatu badira eta balorazio txostenean azaltzen direnak bezalakoak ez badira, behin-behineko likidazioa egingen da balorazio txosten horretan azaltzen den baliotik abiatuta. Zergaren sortzapenaren unean lurak duen hirigintzako errealitate berriaren arabera balioa finkatzen duen balorazio txosten berria onetsi ondoren, zergaren sortzapen egunari dagokion behin betiko likidazioa igorriko da, eta, bidezkoa bada, ordaindutako soberakina itzuliko.

Ondorio horietarako, balorazio txosten berrian agertzen den balioa zuzenduko da, honela: sortzapenaren unean indarra zuen txostenaren arabera hiri-lur gisa sailkaturiko lur guztietako metro koadroaren batez besteko balio ponderatua zati txosten berriak lur horietan emandako metro koadroaren batez besteko balio ponderatua, eta zatiketa horretatik ateratzen den koefizientea txosten berrian agertzen den balioaz biderkatuko da.

4. Jabaria mugatzen duten gozameneko eskubide errealek eraketan eta eskualdaketa, 2. apartatuan aurreikusitakoari jarraikiz sortzealdiari dagokion koefizientea aurreko apartatuan zehaztutako balioaren gainean aplikatuko da, eskubide horien balioak egiten duen zatiaren gainean zehazki; eskubideen balioa kalkulatzeko, ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren ondorioetarako ezarritako arauak aplikatuko dira.

5. Eraikin batean edo lursail batean solairu bat edo gehiago jasotzeko eskubidea eratu edo eskualdatzen denean, edo eraikina lur azpian egiteko eskubidea (azalerako eskubide errealik atxikita izan gabe), 2. apartatuan aurreikusitakoarekin bat sortzealdiari dagokion koefizientea aplikatuko da 3. apartatuan zehaztutako balioaren zati batean, hau da, balio horretan eskualdaketa-aren eskrituran ezarritako proportzionaltasun modulu ordezkatzen duen zatian, edo, halakorik ezean, lur gainean edo lur azpian eraiki beharreko solairuen azaleraren edo bolumenaren eta, horiek eraiki ondoren, azalera edo bolumen eraiki osoaren arteko proportzioaren emaitza.

6. Nahitaezko desjabetzeen kasuan, 2. apartatuan aurreikusitakoari jarraikiz sortzealdiari dagokion koefizientea aplikatuko da prezio-justuaren barruan luraren balioari dagokion zatiaren gainean”.

Lau. 176.2. artikulua.

“2. Karga-eskala udalak ezarriko du, eta gutxieneko karga-tasa ez da izanen 100eko 8tik beherakoa, eta gehienekoa, berriz, ez da izanen 100eko 25etik gorakoa”.

Bost. 178. artikuluko 4. apartatua kentzen da.

Sei. 178.5 artikulua.

“5. Zergaren likidazioak subjektu pasiboetarako jakinazko zaizkie osorik, adierazita sarrera egiteko epea eta zein errekurtsio diren bidezkoak”.

Zazpi. Hamahirugarren xedapen gehigarria gehitzea.

“Hamahirugarren xedapen gehigarria. Udalek onestea hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergan aplikatu beharreko koefizienteak eta karga-tasak.

1. Udalek 175. artikuluan aurreikusitako koefizienteak onesti bitartean artikuluko horretan jasotakoak aplikatuko dira.

2. 64. artikuluan xedatutakoa gorabehera, 2018. urterako, udalek urte horretako urtarrilaren 1etik aurrera onesten ahalko dituzte koefizienteak eta karga-tasak, eta argitaratu eta biharamunetik aurrera izanen dituzte ondorioak”.

**Hirugarren artikulua.** Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzea.

2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 162.1. artikulua testu hau izanen du:

“1. Zerga eskatuko da tarifa hauei jarraikiz:

Kuotak:

## a) Turismoak:

- 8 zaldi fiskal baino gutxiago: 20,02 euro.
- 8 zaldi fiskaletik 12ra bitartekoak: 56,30 euro.
- 12 zaldi fiskal baino gehiago eta gehienez 16: 120,09 euro.
- 16 zaldi fiskal baino gehiagokoak: 150,17 euro.

## b) Autobusak:

- 21 leku baino gutxiagokoak: 140,10 euro.
- 21 lekutik 50era bitartekoak: 200,18 euro.
- 50 plaza baino gehiagokoak: 250,23 euro.

## c) Kamioiak:

- 1.000 kg baino gutxiagoko karga erabilgarria dutenak: 70,13 euro.
- 1.000 kg-tik 2.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak: 140,10 euro.
- 2.999 kg-tik gora 9.999 kg bitarteko karga erabilgarria 200,18 euro.
- 9.999 kg baino gehiagoko karga erabilgarria dutenak: 250,23 euro.

## d) Traktoreak:

- 16 zaldi fiskal baino gutxiagokoak: 34,39 euro.
- 16 zaldi fiskaletik 25era bitartekoak: 68,76 euro.
- 25 zaldi fiskal baino gehiagokoak: 137,36 euro.

## e) Atoiak eta erdi-atoiak:

- 1.000 kg baino gutxiagoko karga erabilgarria dutenak: 35,10 euro.
- 1.000 kg-tik 2.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak: 70,13 euro.
- 2.999 kg baino gehiagoko karga erabilgarria dutenak: 140,10 euro.

## f) Bestelako ibilgailuak:

- Ziklomotorrak: 5,04 euro.
- 125 cc-ra bitarteko motozikletak: 7,57 euro.
- 125 cc baino gehiagoko motozikletak, 250 cc-ra bitarte: 12,55 euro.
- 250 cc baino gehiagoko motozikletak, 500 cc-ra bitarte: 24,74 euro.
- 500 cc baino gehiagoko motozikletak, 1.000 cc-ra bitarte: 49,51 euro.
- 1.000 cc baino gehiagoko motozikletak: 99,01 euro”.

**Xedapen iragankor bakarra.** Hirilurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren zenbait likidazio-tan aplikatu beharreko araubide iragankorra.

Bat. 2017ko uztailaren 15a baino lehen gertatutako zerga-egitateei dagozkien likidazio irmoak.

Hirilurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren likidazioen kasuan, 2017ko uztailaren 15a baino lehen gertatutako zerga-egitateei dagozkien, egun hori baino lehenago irmoak badira, erregela hauek aplikatuko dira:

Lehenena.- Ez da aplikatuko foru lege honetan xedatutakoa.



Bigarrena.- Ez da eginen sarrera bidegabeen itzulketarik.

Hirugarrena.- Aipatutako likidazioetatik eratorritako diru-bilketarako prozedurek aurrera jarraituko dute, guztiz burutu arte, eta geroratutako edo zatikatutako tributu zorrak osorik ordaintzea eskatuko da.

Hirilurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren likidazioen kasuan, 2017ko uztailaren 15a baino lehen gertatutako zerga-egitateei dagozkienean, egun hori baino beranduago izan badira irmoak, xedapen honen bigarren apartatuaren erregelak aplikatuko dira.

Bj. 2017ko uztailaren 15etik 2017ko abenduaren 31 arte, biak barne, gertatutako zerga-egitateei dagozkien likidazio irmoak.

Hirilurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren likidazioen kasuan, 2017ko uztailaren 15etik 2017ko abenduaren 31 arte, biak barne, gertatutako zerga-egitateei dagozkienean, irmoak badira, erregela hauek aplikatuko dira:

Lehena.- Foru lege honen lehen artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

Bigarrena.- Aurreko erregelaren xedatutakoarekin bat, eragiketa zergaren menpe dagoela frogatzen bada, sortzapenaren unean indarra zuen araudia aplikatuko da.

Hiru. Irmo bihurtu ez diren tributu likidazioak, 2017ko abenduaren 31 arte, egun hori barne, gertatutako zerga-egitateei dagozkienak.

Hirilurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren likidazioen kasuan, 2017ko abenduaren 31 arte, egun hori barne, gertatutako zerga-egitateei dagozkienean, irmoak ez badira, erregela hauek aplikatuko dira:

Lehena.- Foru lege honen lehen artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

Bigarrena.- Aurreko erregelaren xedatutakoarekin bat, eragiketa zergaren menpe dagoela frogatzen bada, sortzapenaren unean indarra zuen araudia aplikatuko da.

Lau. Errekurritutako likidazioak, ebatzi gabe daudenak.

1. Xedapen iragankor hau aplikatzekoa zaien likidazioen kontrako berraztertze errekurritsoak, ebatzi gabe daudenak, xedapen honi jarraikiz ebatziko dira.

2. Xedapen iragankor hau aplikatzekoa zaien likidazioen kontrako errekurritsoak, Nafarroako Administrazio Auzitegian edo organo jurisdikzionaletan ebatzi gabe daudenak, xedapen honi jarraikiz ebatziko dira.

Ondorio horietarako, bidezkoa denean, Nafarroako Administrazio Auzitegiak eta organo jurisdikzionalak udalei bidaliko dizkiete ebatzi gabe dauden espedienteak, kasuan kasuko udalek egin ditzaten likidazio berriak, xedapen iragankor honetan xedatutakoaren arabera bidezkoak direnak. Kasu horietan amaitutzat deklaratu dituzte prozedurak, interesdunek udalek emandako likidazioen kontra aurkez ditzaketan errekurritso berriak galarazi gabe.

**Azken xedapenetan lehenbizikoa.** Arauak emateko ahalmena.

Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

**Azken xedapenetan bigarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, legean bertan aurreikusitako ondorioak izateko.



---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Foru legea, irakaskuntzako funtzio publikorako sarbidea arautzen duena.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2017ko abenduaren 21ean egindako Osoko Bilkuran, irakaskuntzako funtzio publikorako sarbidea arautzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2017ko abenduaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **Foru legea, irakaskuntzako funtzio publikorako sarbidea arautzen duena**

#### HITZAURREA

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak eta otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuak –horren bidez onesten da Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan aipatzen diren irakasle-kidegoetan sartzeko eta espezialitate berriak eskuratzeko Erregelamendua, eta lege organiko horren hamazazpigarren xedapen iragankorrean aipatzen den sarrera-araubide iragankorra arautzen da– ezartzen dute zer sistema aplikatu behar den besteak beste Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari irakasle kidegoetako parte izan nahi duten izangaiak hautatzeko. Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duen 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuan betetzen ditu Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak Estatuko arau horiek, funtzio publikoari dagokionez ezarritakoaren arabera.

Araudi hori aplikatzean, behin eta berriro eta salbuespenik gabe baliatu da hautapen-sistema bat, oinarri hartu duena lanpostuak Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legean ezarritako hizkuntza eremuen arabera betetzeko behar diren hizkuntza eskakizunen zehaztapena.

Hautapen prozesuen kudeaketa-sistema horren arabera, deialdi ezberdin eta berezituak egin ohi dira, epaimahai berariazkoekin eta ezberdinekin, Nafarroako Foru Komunitateko hizkuntza erkidego bakoitzari zuzenduak, halako moduan non ekuanimitatea bermatzen baita, eskola erkidegoa mesedetzen baita eta irakasle kidegoetako parte izan nahi dutenen aukera berdintasuna ahalbidetzen baita bi hizkuntzak ez dakizkitenentzat.

Horregatik guztiagatik, bidezkoa da hautapen sistema hau foru lege mailako arau baten bidez zehaztea. Helburua da Foru Komunitatearentzat, bertako herritarrentzat eta irakasle kidegoetan sartu nahi duten pertsonentzat hain garrantzitsuak eta hain erroturik dauden eskubide batzuk mantentzea eta sendotzea, hori guztia aldatzeak eskubide horien urraketa baldar bat ekarriko bailuke.

#### **Artikulu bakarra.**

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak irakasle ez-unibertsitarioen lan eskaintza publikoak garatze aldera onesten dituen deialdietan aplikatzekoa izanen da otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuan ezarritakoa. Errege dekretu horren bidez onetsi zen Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan aipatzen diren irakasle-kidegoetan sartzeko eta espezialitate berriak eskuratzeko Erregelamendua, eta arautu zen lege organiko horren hamazazpigarren xedapen iragankorrean aipatzen den sarrera-araubide iragankorra. Hartara, xedatu zen ezen deialdi horietan nahitaez jasoko direla hautapen prozedura ezberdinak ezagutza arlo edo irakasle espezialitate ezberdinetarako eta Nafarroako Foru Komunitateko hizkuntza ofizial bakoitzerako.

Hautapen prozedura bakoitzean gutxienez ere epaimahai bat izendatuko da ezagutza arlo edo espezialitate eta hizkuntza bereki bakoitzeko, behar bezala kreditatua egonen dena deialdi

zehatz bakoitzerako. Epaimahai bat baino gehiago behar izanez gero, hautapen batzorde bat eratuko da, ebaluazio irizpideak koordinatu eta adostuko dituena.

2. Espezialitatea zein hizkuntzatan emanen den edo hizkuntza espezialitateei zein dagokien, hautaprobea guztiak hizkuntza horretan eginen dira.

3. Hautapen prozedura gainditzen duten izangaiek gainditu dituzten hautaprobei dagozkien espezialitate eta hizkuntzetan aukeratu beharko dute lanpostu hutsa, eta ez du eraginik izanen lekualdatze lehiaketan.

**Xedapen gehigarri bakarra.** Foru lege honek arautzen ez duen guztian aplikatuko dira irakaskuntzako funtzio publikorako sarbideari buruzko Estatuko xedapen indardunak.

**Xedapen iragankor bakarra.** Foru lege hau aplikagarria izanzen zaie foru legea indarrean sartzen den data baino lehenago abiarazitako deialdiei, baldin eta data horretan bukatu gabe badago izangaiek eskabideak aurkezteko epea, zeina 10 egunez luzatutzat joko baita, hasierako epetik aitzina zenbatuta, deialdia foru lege honetan ezarritakoari egokitzeko.

**Xedapen indargabetzaile bakarra.** Indarra hartzean indarrik gabe utziko dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

**Azken xedapena.** Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean hartuko du indarra.

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Hitzarmena, 2017tik 2019ra bitarteko urteetarakoa, Nafarroako Parlamentuko ordezkarien eta Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko Funtzionarioen Langileen Batzordearen artean sinatua.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko abenduaren 28an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Onestea Nafarroako Parlamentuko ordezkarien eta Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko funtzionarioen Langileen Batzordearen artean iritsitako 2017tik 2019ra bitarteko urteetarako hitzarmena, 2017ko abenduaren 28an sinatua.

2. Agintzea hitzarmen hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2017ko abenduaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Hitzarmena, 2017tik 2019ra bitarteko urteetarakoa, Nafarroako Parlamentuko ordezkarien eta Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko Funtzionarioen Langileen Batzordearen artean sinatua**

### **1. IRAUNALDIA**

2017ko urtarrilaren 1etik 2019ko abenduaren 31ra bitartekoa. Hitzarmen honek luzapen automatikoa izanen du 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera, beste hitzarmen batek ordeztua ez den bitartean.

### **2. LANPOSTUEN AZTERKETA.**

NAPIk azaldutako metodologiari jarraikiz, Lanpostuen eskuliburu bat prestatuko da, lanpostu bakoitzaren deskribapena jasoko duena: organigramako kokalekua, eginkizun orokorrak eta berriazko zereginak, lanabesak eta ordutegia.

### **3. NAFARROAKO PARLAMENTUAREN ANTOLAKETA-EGITURAREN AZTERKETA.**

Aholkularitza-enpresa espezializatu batekin kontratatuko da Nafarroako Parlamentuaren anto-

laketa-egiturari buruzko azterketa bat egitea, antolaketa arrazionalizatzeko eta modernizatzeko asmoz.

### **4. LANPOSTU HUTSAK BEHIN BETIKOZ BETETZEA.**

Legebiltzarrean dauden lanpostu hutsak behin betiko bete daitezzen pixkanaka lortzeko plangintza bat eginen da.

### **5. LANALDIA**

a) Lanaldiaren iraupena.

Urteko lanordu-kopurua 1560koa da. Lanaldia egunean 7,5 ordukoa izanen da urte osoan zehar, salbu eta uztail eta abuztuan eta irailaren 1etik 15era bitartean, 6,5 ordukoa izanen baita orduan.

b) Laneko txanden antolaketa.

Lanaldia betiere dago baldintzatuta parlamentu-jarduerari eta Legebiltzarrean sortzen diren beharrezan erantzutera.

Horretarako, langileen lana honako txanda hauetan antolatuko da:

1) Goiz eta arratsaldeko txanda.

Langileek astean behin izanen dute txanda hau, Legebiltzarrean beharrezanek horretarako modua emanaz gero, eta gehienez ere astean bi aldiz. Zerbitziburuei dagokie txanda zehaztea.

Ordutegia 08:45etik 17:30era bitartekoa izanen da, bazkarirako ordu eta laurdeneko atsedenaldi bat barne, zeina 15:00ak baino lehenago egin beharko baita. Ordutegi-malgutasuna 09.15era bitartekoa izanen da sartzeko, eta 18:00etara bitartekoa ateratzeko, Legebiltzarrean beharrezanek horretarako modua emanaz gero.

2) Goizeko txanda jarraia.

Gainerako astegunetan eginen dute langileek.

Ordutegia 07:30etik 15:00etara bitartekoa izanen da, sartzeko 09:30era bitarteko ordutegi-malgutasunarekin eta irteteko 17:00etara bitartekorekin, Legebiltzarraren beharrezkoak horretarako modua emanez gero.

3) Arratsaldeko txanda jarraia edo goiz eta arratsaldeko txanda.

17:30etik aurrera egiten diren parlamentuz kanpoko ekitaldietarako, Mahaiak erabakiko du, zerbitziburuek proposaturik, zer langile diren derrigorrezkoak, eta horiek zehaztea zerbitziburuei dagokie.

Langile horiek zilegi izanen dute 7:30 orduko iraupeneko arratsaldeko txanda jarraia egitea, ekitaldiaren bukaera-ordu aurreikusian amaituko dena, edo goiz eta arratsaldeko txanda bat, iraupen eta bukaera-ordu horiek berak izanen dituen. Bukaera-ordua ezin izanen da 19:30etik haragokoa izan.

19:30etik aurrera egiten den jarduera aparteko ordutzat hartuko da, eta kasuko ordainsaria erakarriko du, ordubete baino gehiagokoa izanez gero.

#### c) Ordu estrak

Lanaldi arruntaz gain emandako denbora, ordubete baino gutxiagokoa denean, ez da aparteko ordu gisa hartuko, eta denbora hori eman den egunaren ondorengo astean konpentsatuko da.

Aparteko ordu izanen dira lanaldi arrunta ordubete baino denbora gehiagoz gaintitzen duten denbora-aldeak, jatorri gisa dutenak Legebiltzarrak 17:30etik aurrera programaturiko parlamentu-jardueraren luzatzea, 19:30etik aurrera eginitako parlamentuz kanpoko jarduera edo lan-zama, ostiral arratsaldez edo jaiegunez.

Aparteko ordu bakoitzaren konpentsazioa 1,75 ordukoa izanen da lanean emandako ordubete, eta 2 ordukoa, jaiegunez eginitako aparteko ordubete.

Aparteko orduak erabili beharko dira sortu diren urtean, eta parlamentu-jarduerarik ez dagoen egunetan.

Orain arte metaturiko aparteko orduak erabili beharko dira, ahal den heinean eta Zerbitzuen beharrezkoak modua ematen badute, 2018 eta 2019an zehar; uztail eta abuztuan, ahal dela.

#### 6. ORDAINSARIAK

Gogoan izanik Legebiltzarreko langileek betiere bermatu behar dutela Parlamentuan egiten

diren jarduera guztien artatzea, eta xede gisa harturik bere horretan eustea lanpostuen ordainsarietako jarduera parlamentarioaren nahiz parlamentuz kanpokoaren gauzatzerik onenerako eskatzen zaien lanaldiarekin eta adaptazioarekin izan beharreko parekotasunari, 2017, 2018 eta 2019an zehar igo egiten dira lanpostu-osagarriak, Mahaiaren 2008ko ekainaren 2ko erabaki bidez onetsiriko baliokidetasun-sistemari heldurik, honako portzentaje hauetan: A maila: % 6,10, B maila: % 5,60, C maila: % 5,50 eta D maila: % 5,50.

Ordainsari-sisteman behar bezalako oreka egon dadin bermatze aldera, baldin eta erabakiko balitz Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen eros-ahalmena kokapen-mailen eguneratzearen bitartez berreskuratzea, lanpostu-osagarrietako gehikuntza horiek egokitu egiten lirateke.

#### 7. PRESTAKUNTZA

Prestakuntza-plan bat berriaz egiten da Parlamentuko langileentzat.

#### 8. FAMILIA-LAGUNTZA

Langile kontratatuei zerbitzu-ematearen lehen egunetik aurrera ordainduko zaie familia-laguntzari dagokion ordainsaria.

#### 9. ENPLEGU-BANAKETARAKO NEURRIAK.

Nafarroako Gobernuak bere langileentzat onetsiriko enplegu-banaketako neurriak Nafarroako Parlamentuko langileei ere aplikatuko zaizkie. Neurri horiek, Langileen Batzordearekin negoziatu ondoren, Nafarroako Parlamentuko funtzionarioen opor, lizentzia eta baimenei buruzko Erregelamenduan jaso beharko dira.

#### 10. LEHENAGOKO HITZARMENAK

Hitzarmen honek aurreikusten ez duen orotan, lehenago onetsiriko baldintzak aplikatuko dira, non eta ez dioten kontra egiten hitzarmen honetan xedatutakoari.

#### 11. HITZARMENAREN GARAPENA ETA ARGITALPENA

Hitzarmen honen aplikazio eta garapenean entzutea emanen zaio Langileen Batzordeari, eta, kasu bakoitzean, Nafarroako Parlamentuak egoki den mailako arauaren bidez jasoko ditu hitzarmen honen apartatuak, bai eta horien geroagoko garapena ere, formalki onetsiak izan daitezzen eta indarrean sar daitezzen.

Era berean, hitzarmena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

## Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen 2018ko lan egutegia.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko abenduaren 28an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Zerbitzu Orokorretako buruak aurkeztutako proposamena eta, halaber, Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak horri buruz adierazitako adostasuna, hona ERABAKIA:

**1.** Onestea Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileentzako 2018ko jaiegunen eta egun berezien egutegia. Honako hau da:

- Uztailaren 6a, 9a, 10a, 11, 12a eta 13a: Sanferminetako jaiegunak.
- Azaroaren 29a: San Saturnino jaieguna.
- Apirilaren 30a eta abenduaren 24a eta 31, jaiegun.

Gainerako jaiegunak izanen dira Foru Komunitateko Administrazioarako oro har ezarritakoak.

**2.** Ohiko lanaldia gaur egun indarra duen berbera izanen da; hots, eguneko 7,5 ordukoa, astelehenetik ostiralera.

Uztailean, abuztuan, urtarrileko lehen astean eta iraileko lehen hamabostaldian lanaldia 08:00etatik 14:30era bitartekoa izanen da. Sartzeko, 07:30etik 08:30era bitarteko malgutasuna egonen da; ateratzeko, berriz, 14:00etatik 15:00etara bitartekoa. Betiere, egunean 6 ordu eta erdiko lanaldia egin beharko da.

**3.** Urteko gainerako egunetarako lan txanda hauek izanen dira langile guztiek bete beharrekoak, talde bakoitzaren berezitasunak kontuan harturik:

1) Goiz eta arratsaldeko txanda.

Langileek astean behin izanen dute txanda hau, Legebiltzarraren beharizanak horretarako modua emanez gero, eta gehienez ere astean bi aldiz. Zerbitzuberuei dagokie txanda zehaztea.

Ordutegia 08:45etik 17:30era bitartekoa izanen da, bazkarirako ordu eta laurdeneko atsedenaldi bat barne, zeina 15:00ak baino lehenago egin beharko baita. Ordutegi-malgutasuna 09.15era bitartekoa izanen da sartzeko, eta 18:00etara bitartekoa ateratzeko, Legebiltzarraren beharizanak horretarako modua emanez gero.

2) Goizeko txanda.

Gainerako astegunetan egingen dute langileek.

Ordutegia 07:30etik 15:00etara bitartekoa izanen da, sartzeko 09:30era bitarteko ordutegi-malgutasunarekin eta irteteko 17:00etara bitartekoarekin, Legebiltzarraren beharizanak horretarako modua emanez gero.

3) Arratsaldeko txanda jarraia edo goiz eta arratsaldeko txanda.

17:30etik aurrera egiten diren parlamentuz kanpoko ekitaldietarako, Mahaiak erabakiko du, zerbitzuberuek proposaturik, zer langile diren derrigorrezkoak, eta horiek zehaztea zerbitzuberuei dagokie.

Langile horiek zilegi izanen dute 7:30 orduko iraupeneko arratsaldeko txanda jarraia egitea, ekitaldiaren bukaera-ordu aurreikusian amaituko dena, edo goiz eta arratsaldeko txanda bat, iraupen eta bukaera-ordu horiek berak izanen dituen. Bukaera-ordua ezin izanen da 19:30etik haragokoa izan.

**4.** Urteko 1.560 lanorduen kopurua lortze aldera, langileek erabilera libreko ordu erdi bat hartu ahal izanen dute 2018. urtean zehar.

**5.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2017ko abenduaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorraren 2018ko ordutegi ofiziala.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko abenduaren 28an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 107. eta 109. artikuluek ezarritakoarekin bat, hona ERABAKIA:

**1.** Ezartzea hauxe izanen dela Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorraren ordutegi ofiziala 2018. urterako:

Uztailean, abuztuan, urtarrilaren lehendabiziko hamabostaldian eta irailaren lehendabiziko hamabostaldian:

– Astelehenetik ostiralera:

09:00etatik 14:00etara.

– Uztailaren 6an, 9an, 10ean, 11n, 12an eta 13an itxita egonen da, eta egun horiek baliogabeak izanen dira ondorio guztietarako.

Urtarrilaren 8tik ekainaren 29ra, irailaren bigarren hamabostaldian eta urritik abendura bitartean:

– Astelehenetik ostegunera:

09:00etatik 17:30era.

– Ostiraletan: 09:00etatik 14:30era.

– Apirilaren 30ean eta abenduaren 24an eta 31n itxita egonen da, eta egun horiek baliogabeak izanen dira ondorio guztietarako.

**2.** Baliogabeak izanen dira, halaber, larunbat, igandeak eta Nafarroako Foru Komunitaterako eta Iruñerako ezarritako jaiegunak.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko abenduaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## 2017an indarrean dagoen Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen plantilla organikoa aldatzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko abenduaren 28an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarraren zerbitzuko langileen plantilla organikoa aldatzeko proposamena –Zerbitzu Orokorrerako buruak eginak– eta Kontu-hartzailatza eta Gai Ekonomikoetarako zerbitzuburuak eginiko txostena aurkeztuta, Nafarroako Parlamentuko ordezkarien eta langileen arteko 2017tik 2019ra bitarteko urteetarako hitzarmena, 2017ko abenduaren 28an sinatutakoa, aplikatuz, hona ERABAKIA:

**1.** Onestea Mahaiaren 2016ko otsailaren 15eko erabakiaren bidez onartutako eta 2017an indarrean egon den Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen plantilla organikoaren ondoko aldaketa hau, 2017ko urtarrilaren 1eko atzeraginez.

**2.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Parlamentuko web orrian argitara dadin.

Iruñean, 2017ko abenduaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza



## a) Funtzionarioak

	Kop.	Maila	Izendapen librea	Esklusi-bitatea	Batera- ezintasuna	Lanpostu osagarria	Mailako osagarria	Berariazko osagarria	Arrisku bereziko osagarria
<b>IDAZKARITZA NAGUSIA</b>									
Legelari nagusia (1)	1	A	X	55		86,10		35	
<b>Mahaiaren eta Eledunen Batzarraren Idazkaritza</b>									
Administrari burua (2)	---	C	X			61,68	12		
Administraria	2	C				51,68	12		
<b>ZERBITZU JURIDIKOAK</b>									
Legelariak	5	A		55		69,10			
<b>ZERBITZU OROKORRAK</b>									
Zerbitzu Orokoretako burua (3)	---	B	X	55		48,20			
Administrazio kudeaketako erdi mailako teknikaria	2	B			35	38,20			
Informatikako goi mailako teknikaria	1	A			35	39,10			
Informatika sistemetako erdi mailako teknikaria	2	B			35	38,20			
Administrariak (4)	5	C				51,68	12		
Mantenimenduko ofizial teknikaria	1	C				45,50	12		10
Gelazain nagusia (5)	---	D				52,00	15		
Gelazainak (6)	11	D				42,00	15		
<b>PRENTSA, ARGITALPEN ETA PROTOKOLO ZERBITZUA</b>									
Prentsako burua	1	A		55		69,10			
Komunikazio teknikaria	1	A			35	39,10			
Itzultzaileak	5	A		55		23,10			
Protokoloko teknikaria (7)	1	B			35	38,20			
Administrariak (4)	2	C				51,68	12		
Transkriptoreak (4)	6	C				51,68	12		
<b>ARTXIBO, LIBURUTEGI ETA DOKUMENTAZIO ZERBITZUA</b>									
Artxibo eta Liburutegiko burua	1	A		55		49,10			
Liburutegiko laguntzailea eta dokumentalista	2	B			35	38,20			
Administrariak (4)	2	C				51,68	12		
<b>KONTU-HARTZAILTZA ETA EKONOMIA GAIETARAKO ZERBITZUA</b>									
Kontu-hartzailetzako burua	1	B		55		48,20		15	
Administrazio kudeaketako erdi mailako teknikaria	2	B			35	38,20			
Administrariak	2	C				51,68	12		
<b>NAFARROAKO ARARTEKOAREN BULEGOA</b>									
Administrazio kudeaketako erdi mailako teknikaria	1	B			35	38,20		20	
Administraria	2	C				51,68	12		

(1) Parlamentuko Mahaiak izendaturikoa, Lehendakartzak proposaturik, Parlamentuko legelarien, Kontuen Ganberako legelarien edo Nafarroako Gobernuako aholkulari juridikoen artetik. Plantilla organikoaren argitaratze-egunean, Nafarroako Gobernuaren Aholkularitza Juridikoko funtzionario batek betetzen du lanpostu hau.

(2) Izendapen librea, Parlamentuko administrarien kidegoko funtzionarioen artean.

(3) Izendapen librea, Parlamentuko administrazio-kudeaketako maila ertaineko teknikarien artean.

(4) C1 mailako euskara-titulua duen lanpostua.

(5) Merezimenduen lehiaketa bidez izendatua, gelazainen kidegoko funtzionarioen artean.

(6) Mantentze-lanak egiteko atxikitako lanpostua.

(7) B1 mailako ingeles-titulua duen lanpostua.





